


Errobotik euskal itsasbazzterera

Ibilbide guziak eskuragarri Turismo Bulegoetan ►►



MAILA
4

ZAILA



MUNDARRAIN ETA ARTZAMENDI

ITSASU

bitari entrenatu eta mendi lasterketazaleendako (trail) ibilaldi miresgarria, Mundarrain eta Artzamendi lepoetaraino. Bere paisaien aniztasuna, bista panoramikoak eta elementu historikoekin ibilaldi ohargarria bihurtzen da. Fauna eta flora aho zabalik uzten du jendea, eremu heze intatsuak eta Errobiko arroilak ikusirik, besteak beste. Erreferentziak zko iraupena ibiltarientzat neurtua da.



Cromlech au col de Mehatxe

Abiatzeko bidea:

Herriko karrika nagusitik (« La Place » auzoa) frontoiera joan, horren itzulia egin eta hegoruntz joaiten den karrika hartu. 100 metro urrunago, eskuineko aparkalekuan sartu eta autoa bertan utzi.

Aparkalekutik ateratzean **D** 628743 - 4798876, eskuineko bidea hartu. Zuzen segitu zeharkatu beharko den Basaburuko errekaraino **1** 628661 - 4798503. Eihera eder baten aitzinetik pasatu. Atharriko mendira joaiteko bidea segitu. Gaztainadi eder bat zeharkatu. Cinq-Cantons izeneko bidegurutzera **2** 628745 - 4798274 iristean, eskuineko bidea hartu eta segitu bide mundrunatu eta etxalde multzo batera iristeko. Bide mundrunatuan 200 metro egin eta ezkerrera hartu, igaiten den lehen pistan

0.40

1.20

1.50

2.15

2.45

3 628023 - 4798142. Igaitea artzain-eremu zabal batetik doa Atharriko mendi mazeletan, eta Legarreko leporaino **4** 627588 - 4797533 eramaiten du. Bide mundrunatua zeharkatu eta parean, Mundarrainera igaiten den pista hartu. Amezketan lepoan

5 627222 - 4796503, konifero oihantxo baten bazterrean, Mundarraingo leporuntz segitu. Pagadia eta harri-jausiak/luiziak zeharkatu aitzin, balizak ongi segitu, gero kaskorainoko igaitea

6 627155 - 4795537 zuzenki hasteko. Kaskoan, bista panoramiko miresgarria eskaintzen da. Jaitsiera joaitaren kontrako aldetik egiten da. Malda gogor baten jaitsi ondoren, gopoil belartsu baten gainean desagertzen da xendra, GR®10 eta Zuharretako lepora **7** 626686 - 4794140 iritsi arte. GR®-a utzi

3.40

4.05

4.45

5.20

6.05

7.10

8.15

berehala, Bizkailuzeko mendi lerrora igaiten den xendra bat hartuz. Gorospileko leporaino **8** 626058 - 4791799 segitu. Ezkerraldean den bidetik berriz jaitsi. Esteben Borda baserria pasatu eta, bi hesien arteko bidea hartu ezkerraldean; Ahaxe lepora **9** 627154 - 4791691 (col des Veaux) eramaiten du laster. Bidea zeharkatu, pareko pistatik igan GR®10eko baliza xuri eta gorriak segituz, bide mundrunatura joan Mehatxeko lepora **10** 628490 - 4792344 iristeko. Bere elementu protohistorikoekin (cromlech), Mehatxe famatua bilakatu da. 80. mugarrarian, GR®-eko bidea utzi Artzamendiruntz joaiteko. Kaskoan **11** 629276 - 4793528, gopoilaren aitzinetik pasatu eta zuzen segitu zeharkatu beharko den hesiraino. Gero, baliza horiak segitu eta Atekagaitzaruntz joaiten den jaitsiera gogorra hasi (urrundik agerian, Atharri eta Arrokgaraiko mendien artean). Markapazotak segitu eta zuzen joan gune harritsu baten barna. Gune belartsu batera iritsi. Zuzen segitu 300 metroz eta eskuinera hartu mendi gain ttipi bateruntz. Mendi gaina zeharkatu, eta Aneko lepoaren ezkerraldean, «Zelai Berde»ko 2 arditegien hondakinen deskubritzera joan. Gero Kaskaitza **12** 630485 - 4795040 izeneko lekura eramaiten duen bide zabal bat hartu, eta aski fite ezkerrera hartu sigi-saga doan xendra hartzeko. Jaitsiera luze eta gogor baten ondoren, Laxia auzora **13** 629720 - 4796785 eramaiten duen bide mundrunatura iritsi. Atekagaitzarako bidea hartu eta balizak segitu herriraino.



©IGN

D Itsasu,
Ateka Sanoki aparkalekua

GPS : 628743 - 4798876



8.15 oren

24 km
 +1385 m
 -1385 m

Seinaletika

D -tik **9** -rat
9 -tik **10** -rat
10 -tik **13** -rat

Huts egin behar ez dena

- Eremu heze eta intatsuak
- Mundarraingo gotorlekuaren hondakinak
- Cromlech-ak (hilobi harriak)
- Atekagaitzako arroiak
- Panorama euskal kosta eta Errobiko haranara buruz

- Eguraldi txarrean saihestu
- Animaliekin distantzia zerbait atxiki
- Guneak errespetatu
- Ibiltari entrenatuentzat soilik

Xehetasun gehiagorentzat :



Ezpeleta eta Arrangoitze Lurraldeko Bulegoa
Ezpeletako Baroien Jauregia – 64250 Ezpeleta - Tel : 05 59 93 95 02
Mail : espelette.tourisme@wanadoo.fr - Web : www.espelette.fr



« Guides randos 64 » zerrenda osoa: www.rando64.fr

www.rando64.fr

oinez, bizikletez edo zaldiz, Biarhoa eta Euskal Herria deskubritu!

ZUEN IBILALDIA ONGI HAUTATU

Maila eta seinaleak



Desmaila: ibilaldi bakoitzarentzat, igaite guziak kalkulatuak dira.



Iraupena: ibilaldi bakoitzaren iraupena adierazgarri gisa erabiltzen da. Ibilaldiaren luzetasuna, desmaila eta menturazko zailtasunen arabera neurtzen da.



Ibilaldiak

Ibilaldiak zailtasunen arabera sailkatuak dira, eta gida orri bakoitzean koloreen bidez desberdinduak dira.

Ibilaldien FF-ren gomendioak segitzen ditugu.

▶ 2 oren baino guttiagoko ibilaldia
Idealki familiarekin egiteko, ongi markatuak diren bideetan.

▶ oren baino guttiagoko ibilaldia
Ibiltari ohituentzat. Batzuetan desmailak edota guneko kiroitsuak.

▶ oren baino guttiagoko ibilaldia
Familiarekin egin daiteke. Bideetatik, batzuetan pasabide zailagoak.

▶ oren baino gehiagoko ibilaldia
Ibiltari esperientziadun eta kiroitsuentzat. Ibilaldi luze edota zailak (desmaila, pasabide gogorrak).

Balizak segitu bide onean egoteko

Xendren balizak	Herri eta PR [®] -en xendrak	GRP [®]	GR [®]	VTT	Zaldiketa
Norabide ona					
Ezkerre hartu					
Eskuinera hartu					
Norabide txarra					

GR[®], GRP[®] eta PR[®] Ibilaldien Frantses Federazioak erregistratu markak dira.

Ibilaldi batzu kalitate eskakizunen arabera hautatu ditu Ibilaldien Frantses Federazioak, PR[®] labelaren pean.



Bidezidor seinaleak

Bideen GPS helbideak

Erreferentziako neurria:
WGS 84 - UTM 30T
Ibilbideen GPS bideak
telekargatu:
www.rando64.fr

GOMENDIO BALIAGARRIAK

▶ Meteo 08 92 68 02 64 edo 32 50 edo www.meteofrance.com.

Errobitik euskal itsasbazterrerako bideetan zehar ibiltzeak errespetuzko jarrera bat eskatzen du natura eta lurralde horiek biziarazten dituzten gizon eta emazteei begira. Arau batzu errespetatu behar dira.

Natura zaindu

▶ Zuen hondarkinak atxikitzeke zaku bat hartu ▶ Fauna eta flora errespetatu ▶ Balizak dituzten xendretan egon

Zuen burua babestu

▶ Material egokirik gabe ez joan
▶ Bakarrik joaiteak arriskuak ditu
▶ Erreketatik datorren ura ez edan
▶ Meteo so egin

▶ Europako urgentziako deia 112

— *Jarduerak eta jendeak errespetatu* —

▶ Hesiak berriz hetsi
▶ Xakurrarekin joaitea ez da komeni. Kasu guzietan, sokatik atxiki.
▶ Suak debekatuak dira
▶ Ibilaldien bazterretan diren jabego pribatuak errespetatu

Kasu !

Usa ehiza garaian (urritik azarorart), ehizaldietan (urte osoan zehar) eta lurra erretzean (abendutik martxorart), ibilaldi batzu saihestu behar dira. Turismo bulegoetan xehetasunak galdegin.

Egiteko gomendioak:



Gure xendrei buruzko iritziak

Eco-veille

Proposatzen dizkizuegun ibilaldiak arreta handiz hautatuak izan dira. Bideei dagokienez, zuen iritzi eta oharrak ongi etorriak dira atxikitzea edo mantentzea ahalbidetzeko. Zuen iritziak emaitza gonbidatzen zaituztegu Errobi Herri Elkargora deituz, 05 59 93 65 94.

Ecoveille[®] orria telekargatzen ahal duzue: www.rando64.com/ecoveille

Ecoveille[®].behaketa orri bat ere eskuratzen ahalko duzue.

www.rando64.fr

oinez, bizikletez edo zaldiz, Biarno eta Euskal Herria deskubritu!